

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ZUIAKO UDALA

Kultura- eta gizarte-arloko eta euskara sustatzeko 2019ko diru-laguntzak deitzen dituen Zuiako Udalaren Osoko Bilkuraren 2019ko apirilaren 11ko erabakiaren laburpena

BDNS (Identif.): 462935

Diru-laguntzak emateko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3 eta 20.8 artikuluetan aurreikusitakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitara ematen da, eta horren testu osoa Espainiako Diru-laguntzen Datu-basean kontsulta daiteke, <http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans>.

Lehenengoa. Onuradunak

Sozietatearen egoitza Zuiako udalerrian daukaten kultura- edota gizarte-arloko elkarte eta talde publiko zein pribatu guztiak, baldin eta ez badaukate irabazteko asmorik eta legez ezarritakoaren arabera eratuta eta erregistratuta badaude.

Bigarrena. Xedea

Zuiako udalerraren lurralde-eremuan kulturaren, aisialdiaren eta euskararen arloetan garatzen diren jarduerak, lehenetsua honako programa hauek izanik: udalerrian gizarte-ongizatea eta aukera-berdintasuna sustatzen dutenek, euskararen erabilera eta herritarren parte-hartzea sustatu eta bultzatzen dutenek, egoera larrian edo baztertzeko arriskuan dauden taldeen gizarteratzea bermatzen dutenek, eta tokiko tradizioak berreskuratzea eta bizi-kalitatea hobetzea sustatzen dutenek.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

Udalaren Osoko Bilkurak 2019ko apirilaren 11n onartu zituen diru-laguntzak eta ALHAOn argitaratuko dira.

Laugarrena. Zenbatekoa

Partidaren diru-zuzkidura 26.000 eurokoa da.

Erakunde bakoitzak eskatutako diru-laguntzaren zenbatekoa ezingo da kontuan hartutako aurrekontuaren ehuneko 50 baino handiagoa izan.

Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea

Hogei egun natural laburpen hau ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera. Azken eguna larunbata edo jaieguna balitz, hurrengo egun baliodunera luzatuko da.

Seigarrena. Beste datu batzuk

Eskabidea zein deialdiaren oinarriak www.zuia.eus orrian (Izapideak/Diru-laguntzak) edo Oinarrietan azaltzen dira.

Murgian, 2019ko apirilaren 11n

Alkate-Udalburua
UNAI GUTIERREZ URKIZA